

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2019ko MARTXOAREN 14an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2019ko martxoaren 14an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Aneli Urbieta Etxeberria Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
Felix Joaquin Asensio Robles
Angel Serrano Martinez
Aritz Sarria Saraqueta
Ander Leon Nanclares


Bere ezin etorria azaltzen du: Cristian Ivo Sebastian Pizarro Jofre

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de la siguiente acta Plenaria:**
 - **2019ko otsailaren 21ean egindako ohiko bilkura./ Sesión ordinaria de fecha 21 de febrero de 2019.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. 2018ko aurrekontuaren likidazioaren berri ematea, hala bada./Dación de cuenta de la liquidación correspondiente al ejercicio 2018.**
- 4. Larraulgo Ostatuko jabari emakida ustiatzeko prozeduraren onespena, hala bada/Aprobación de la concesión demanial para la explotación del Herri Ostatua de Larraul.**
- 5. Telefonikak Larraulgo herrian fibra jartzeko espedientearen onespena, hala bada./ Autorización solicitada por Telefónica para la instalación de la fibra óptica en el municipio de Larraul.**
- 6. Tolosako Hiltegi Mankomunatuari 2019 urteko ekarpena onestea, hala bada/ Aprobación de la aportación económica a Tolosako Hiltegi Mankomunatuari, correspondiente al ejercicio 2019.**
- 7. 2018/2019 Ikasturteko Larraulgo herritarrei euskara ikastaroak burutzeko dirulaguntzen onespena, hala bada./Aprobación de las solicitudes de ayudas económicas a los habitantes de Larraul por cursos de euskara, curso escolar 2018/2019.**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

8. **2019 urterako Udal zergen hobari eskaeren onespena, hala bada.**
/Aprobación de las bonificaciones en los impuestos municipales correspondientes al ejercicio 2019.

9. **Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.**

10. **Beste batzuk/Otros.**

11. **Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.**

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.

▣ 2019 urteko otsailaren 21ean Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

16/2019 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 1ekoa, non Distribuciones Lopetegi S.L. enpresari, Pilotalekuko zorua garbitzeko mopa berriaren erosketarako kontratua esleitzea, ebazten duena.

17/2019 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 1ekoa, non Setalde S.A. enpresari, komun publikoetako, komun bateko tapa berria erosteko kontratua esleitzea, ebazten duena.


18/2019 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 1 ekoa, non Saniplast S.L. enpresari, pilotaleku ondoko hidrantearen konponketarako pieza bat erosteko kontratua esleitzea, ebazten duena.

19/2019 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 7koa, non 2019ko otsailaren 18ko Gipuzkaoko Aldizkari ofizialean argitaratutako diru-laguntza programan sartzea, hau da, Memoria historikoa berreskuratzea xede duten proiektuak gauzatzeko, Zizurkil, Aduna eta Asteasuko Udalarekin batera, ebazten duena.

20/2019 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 7koa, non 2018ko aurrekontuaren likidazioa onartzea, ebazten duena.

21/2019 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 12koa, non Berri Lantegia S.L. enpresari, desbrozadoraren motxila konponketa egiteko kontratua esleitzea, ebazten duena.

22/2019 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 13koa, non Ferreteria Barbe, S.L. enpresari, errefuxako kontenedorearentzat kandadoa, giltza kopiak eta herri lanetarako materialaren erosketa kontratua esleitzea, ebazten duena.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA

2018KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA, HALA BADA

Ondoren 20/2019 Alkate dekretuaren berri ematen da:

2019/20 DEKRETUA


Udal honen 2018ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehena.- Udal honen 2018ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

DIRUZAINZTA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2018-12-31n:		100.995,82
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2018-12-31n:		30.871,42
Aurrekontuko zordunak :	28.372,50	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	2.498,92	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2018-12-31n:		30.252,69
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	18.110,22	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	12.142,47	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2+3):		101.614,55
5.- Saldo kobragaitzak:		0,00
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		0,00
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		101.614,55



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	-13.644,22
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	0,00
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	96.984,56
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	0,00
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	83.340,34

KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	14.622,08
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	34.890,53
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	49.512,61

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.


Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

Laugarrena.- Martxoaren 7an Udal Idazkari-Kontuhartzaileak eginiko komunikazioaren berri ematea:

2018ko Aurrekontuaren likidazioaren espedientea kontuan hartuta, Udal honek ez du betetzen 2018ko aurrekontuen egonkortasuna eta gastu araua. Beraz, Udal hau behartuta legoke, beraz, plan ekonomiko finantzarioa onartzera.

Hala ere, kontuan izanda 2018rako ezarritako zor helburua betetzen dela eta aurreko urteko likidazioan aurrezki garbia eta diruzaintza gerakina positiboak izan direla, Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2014ko azaroaren 19ko Jarraibidearen 3. erregelari ezarritakoari jarraituz, kontuhartzaile honek berariazko txostena hau egin behar du eta batzarrari jakinaraziko zaio, plan ekonomikoa ordezkatzeko duena.

Eta argi eta garbi ikusten da Likidazio espediente honek ez duela entitatearen finantza iraunkortasuna eta aurrekontuaren egonkortasuna zalantzan jartzen.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Bertaratuek aipaturiko Alkate dekretuaren berri jasotzen dute.

LAUGARREN PUNTUA

LARRAULGO OSTATUKO JABARI EMAKIDA USTIATZEKO PROZEDURAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Larraulgo Ostatuko jabari emakida ustiatzeko prozedura martxan jarri behar dela, horretarako Txosten juridikoa, baldintza teknikoak eta baldintza administratiboak prestatu dira.

Guztia azterturik, Udalbatzak, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Herri ostatuko lokala emakidan esleitzeko bertan jatetxe eta taberna jarduera garatzeko proiektua onartzea.

BIGARRENA: Proiektua eta baldintza agiri administratibo eta teknikoak eta emakida esleitzeko lizitazio publikoa jendaurrean jartzea 30 eguneko epean, akordioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

BOSTGARREN PUNTUA

TELEFONIKAK LARRAULGO HERRIAN FIBRA JARTZEKO INSTALAKUNTZAREN ONESPENA, HALA BADA

Alkatetza hau jakitun izan da Telefonikak, Larraulgo herrian fibra jartzeko asmoa duela. Lehendik duen azpiegitura erabiliko du lan honetarako, hau da, gaur egun dituen posteetatik fibrazko aria pasatuko dute eta kobrea kendu. Aipaturiko lanak egiteko obra berririk ez du egingo.


Batzarkideak jakinaren gainean gelditzen dira.

SEIGARREN PUNTUA

TOLOSAKO HILTEGI MANKOMUNATUARI 2019 URTEKO EKARPENA ONESTE, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldeko Hiltegiko Mankomunitateak 2019ko urtarrilaren 10ean egindako bilkuran, aho batez erabaki zuela, Mankomunitateko kide diren Udalek erakundearen langilearen soldata eta kudeaketa ekonomiko-finantziarioa ordaindu ahal izateko, 2019urtean 39.605,00 eurotako ekarpena egin behar zutela. Larraulgo Udalarik 99,00 euro suposatzen diolarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldeko Hiltegi Mankomunitateari 2019 urteari dagokion ekarpena onestea eta burutzea, 99,00 euroko diru kopuruan. Ordainketa hau 2019ko Udal aurrekontuetako 422.431.40.01 partidaren kargura egingo da.

BIGARRENA: 99,00 euroko gastua onestea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

2018/2019 IKASTURTEKO LARRAULGO HERRITARREI EUSKARA IKASTAROAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Larraulgo Udalak 2019ko urtarrilaren 31an ospatutako ohiko Udalbatzarrean 2018-2019 ikasturterako Larraulgo biztanleentzat euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak onartu zituela.

Ikusirik aipaturiko epean eskaera bat egon dela eta onartutako 2 , 3 eta 4 oinarriak betetzen dituela, ondorengoak izanik:

IZEN ABIZENAK	JARDUERA
L.P.O.	EUSKARA

Gaia azterturik, Udalbatza honek, Ander Leon zinegotziaren abstentzioarekin, gehiengoz, ondorengoa,


ERABAKITZEN DU:

LEHENA: L.P.O. andreak eginiko eskaera onestu, hau da, Donostiako AEK Euskaltegian burutzeko asmoa duen Euskarako C1 maila lortzeko ikastaroa egiteko diru-laguntza ematea, ondorengoari baldintzaturik:

- Klaseak bakarrik diruz lagunduko dira.
- %85eko asistentzia justifikatu beharko du.
- Maila bakoitza behin bakarrik diruz lagunduko da (Aitzol euskaltegiak aurrikusitako ordu kopuruen arabera).

Baldintza hauek betetzen dituela frogatzeko, Larraulgo Udaletxean matrikularen ordainagiria eta egindako maila gainditu duela eta asistentzi ziurtagiria aurkeztu beharko du.

BIGARRENA: Diru-laguntzaren ordainketa ondoren zehazten den modura egitea:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- % 50: Matrikula ordaindu duenaren agiria aurkeztutakoan.
- %50: Ekainean, asistentzia ziurtagiria aurkeztutakoan.

HIRUGARRENA.-Erabaki honen berri interesatuei ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

2019 URTERAKO UDAL ZERGN HOBARI ESKAEREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik 2019 urterako Udal zerga-tasen hobari eskaerak egiteko 2019ko otsailaren 1etik 28 arte epea ireki zela, 12 eskaera egon direlarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Ondoren zerrendatzen diren 2019 urterako udal zerga-tasen hobari eskaerak onestea:

TITULARRA	ZERGA	ARRAZOIA	ZENBATEKOA
I.B.G	OHGZ	FAMILI UGARIA	%50
M.S.G	OHGZ	FAMILI UGARIA	%50
I.A.O	OHGZ	FAMILI UGARIA	%50
M.M.T.	OHGZ	FAMILI UGARIA	%50
A.A.J	OHGZ	EGUZKI APROBE.	%25
I.O.D.	OHGZ	EGUZKI APROBE.	%25
L.M.T.	OHGZ	EGUZKI APROBE.	%25
A.I.R.	OHGZ	EGUZKI APROBE.	%25
I.U.A.	TMIGZ	IBILGAILU HISTO.	%50
K.J.S.	TMIGZ	IBILGAILU HISTO.	%50
J.U.	TMIGZ	IBILGAILU HISTO.	%50
J.U.	TMIGZ	IBILGAILU HISTO.	%50


BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdunei ematea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

BULEGOAK	370,77
BAZEN BEHIN CLOWN	450,00
CORREOS	3,61



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

DISTRIBUCIONES LOPETEGUI	21,16
AKETEGI	43,00
KIROLZER	49,65
EBA ERKIZIA BRION	1.357,92
ZU ETA BIOK	829,80
SETALDE	56,08
SANIPLAST	15,13
CALPARSORO INDUSTRIAL	15,35
FERRETERIA BARBE	42,93
IBERDROLA	152,74
IBERDROLA	176,50
IBERDROLA	77,29
IBERDROLA	205,16
IBERDROLA	26,79
NORTEGAS	198,55
NORTEGAS	591,52
MOVISTAR	182,77
MOVISTAR	117,13

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengo,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **4983,85** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

HAMARGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

Ez dira aurkezten.

HAMABIGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.00 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA